IKAS Xiberoak kantore eta ele-jokü andana bat grabatü dü, bere ikasmaterialetan sartzeko eta bereziki, CP mailako haurrentako, haien irakurte prozesaren süstengatzeko.

Irakurten ikasteko bidean, sonüen ikastea ezinbestekoa da, alfabetaren menperatzea eta gure hizkuntzako hots desbardinen idazten eta entzüten jakitea. Kantoreak ekarten dütüan fonema desbardiner esker, haurrak kantatzez ikasten ahalko dütü sonü horik eta gero bere irakurketan egokitzen.

Adibidez, ñ sonüaren ikasteko, **Buba ñiña** kantorea kantatüko da, ala x sonüaren ikasteko **Xoxoa**, F sonüarentako **Furra furra Fandangoa** eta beste.

Grabaketa horik *Ana eta giltzotsak* metodaren barne dirate, IKASek prestatü ikasmaterialaren barne, eta metoda aitzinatzen da, sonü bat ala beste ikasten den bezala.

Hamar bat kantariren lana da, denak oro xiberotarrak, bakoitxak ikasi kantoreekin, beti ere pentsatzez haurrer hersatzen diren kantoreak kantatü behar direla.

## Kantoreak

**Bedatsearen heltzean**
**Zü zira zü**
**Nola deitzen zira**
(Z sonüa)

**Xoxoa**
**Ximun Ximun**
(X sonüa)

**Kükürrükü zer dük oilarra**
**Kükürrükü nor gira gü**
(K sonüa)

**Lau sasuak**
(N sonüa)

**Lili bat ikusi düt**
(L sonüa)

**Arri arri mandoko**

**Zikilimarro**
(M giltzotsa)

**Pitipin patapan**
**Txorittoa Bilagarrottoa**
(T sonüa)

**Ürzo xuria**
**Arruela Marruela**
**Arla marla**
(R sonüa)

**Pin pin txoria**
**O Pello Pello**
**Pin pan pin**
(P sonüa)

**Sagü txipi sagü maite**
**Ase eta pasea**
(S sonüa)

**Furra furra fandangoa**
(F sonüa)

**Jin jan joan**
**Jeiki jeiki etxekoak**
(J sonüa)

**Buba ñiña**
**Txipiñiñi**
(ñ sonüa)

**Lo hadi aingürüa**
(H sonüa)

**Otsoari agrada bildotsa**
(TS sonüa)

**Kantariak**
Nadine Elgoyhen, Johañe Berrogain, Lüxi Aguergaray, Maika Etxekopar, Argitxu Camus, Maite Aguer, Mathieu Mendizabal, Maider Bedaxagar

**Sonügileak**
Jean-Charles Sanz, Mixel Etxekopar

**Grabazalea**

Unai Zubeldia